

# AUBIXA FUNDAZIOAREN EKITALDIA: ADINEKOEN ESKUBIDEAK ETA ESKUBIDE HORIEK BALIATZEA

Donostia-San Sebastián

Adinekoen eskubideak hizpide hartuta, **Aubixa fundazioak** antolatu duen mahai-inguru batean parte hartuko du gaur arratsaldean, Donostian, Manuel Lezertua arartekoak. Adinekoen taldea heterogeneoa da eta oso arazo eta interes desberdinak ditu. Mahai-inguruan ere egongo dira Galiziako Valedora do Pobo eta Catalunyako Síndic de Greuges.

Bere mintzaldian, arartekoak hainbat aldiz aipatuko du Europar Batasunaren oinarritzko eskubideen Gutuna. Adierazpen horrek berriazko kapitulu bat eskaintzen die adinekoen eskubideei. Artikulu horretan aitortzen eta errespetatzen da adinekoek bizimodu duin eta independentea egiteko duten eskubidea, baita bizitza sozial eta kulturalen parte hartzekoa ere.

Euskadiko egoeraz ere egingo du berba, izan ere, Euskadin ez dago adinekoen eskubideen araudia biltzeko berriazko legerik, eta Gizarte Zerbitzuen Legea hartzen da arau-esparrutzat.

Aubixa fundazioa 2016an sortu zen, AFAGI Alzheimerra eta buruko beste gaitz batzuk dituztenen senideen eta lagunen Gipuzkoako elkartearen ekimenez, honako helburu honekin: gaixoen elkarte batek berezko dituen zereginetatik harago joatea gizarte-ikerketaren arloan, adinekoen eskubideen arloan eta adinarekin lotutako buruko gaitzak dituztenen eskubideen arloan.

Zahartzea pentsio-sistamarako arazo demografikoa eta iraunkortasunezkoa besterik ez dela dioen ikusmoldea gainditu nahi du Aubixak, adineko pertsonak duinduz eta bizi-itzaropena luzatzea aukera bat bihurtuz belaunaldien arteko elkartasuna, genero berdintasuna eta gizarte berrikuntza lortzeko. Era berean, Alzheimer gaitzari buruzko estigmak desagerrarazten laguntzeko konpromisoa hartu du.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 12a

## GAI HONEKIN LOTUTAKO DOKUMENTUAK

Actividades

 [Arartekoaren interbentzioa 12-01-2017](#)

 [Atzera](#)



BIKAIN TASUNAREKIN KONPROMISOA  
COMPROMISO CON LA EXCELENCIA

ELIZABETA ALAMENDI  
EUSKALIT  
GESTION AVANZADA

Ararteko 2014

